2024ko **LAN OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN** NAZIOARTEKO EGUNA

# IKUSKARITZARIK GABE LANGILEOK HERIOTZERA KONDENATUTA!

## ¿POR QUÉ NO SE PERSIGUE LA EXPLOTACIÓN LABORAL?

**ELA pide a los partidos políticos que se comprometan antes de las elecciones a aumetar la plantilla de inspección de trabajo a 120**

El 28 de Abril de este año, Día Internacional de la Salud y la Seguridad en el Trabajo, tiene lugar en un contexto político especial, una semana después de las elecciones políticas en la CAPV. Por eso ELA hace una clara exigencia a todos los partidos políticos que van a participar en las elecciones, a que antes de las elecciones muestren un claro compromiso por la salud de los trabajadores y trabajadoras y, en consecuencia, eleven a 120 el número de inspectores e inspectoras de trabajo de la CAPV, en lugar de las 58 personas actuales.

Como otras competencias mal ejecutadas, la competencia de la inspección de trabajo no fue traspasada totalmente al Gobierno Vasco y, en consecuencia, el número de inspectores e inspectoras no puede incrementarse sin acuerdo con el Gobierno de España. ELA exige que el aumento del número de inspectores e inspectoras de trabajo sea una prioridad absoluta para todas las partes. ELA solo pide que se consiga el número medio de inspectores europeos. Si no se amplía la plantilla de inspección quedará clara la complicidad de los distintos partidos políticos con los empresarios explotadores.

Mientras se debaten las competencias y recursos con el Gobierno de España, ELA exige la constitución de una unidad específica de 50 trabajadores y trabajadoras públicas de apoyo a la inspección para garantizar el cumplimiento de las medidas preventivas y la investigación de actuaciones contra la salud laboral. No existen causas no naturales que den lugar a tantas muertes y heridos como los accidentes de trabajo y las enfermedades profesionales, y la petición de ELA es perfectamente razonable, más aún teniendo en cuenta los recursos utilizados para perseguir otros delitos. En Euskal Herria cada año más de 50 trabajadores y trabajadoras pierden la vida en accidentes de trabajo. Según la Organización Internacional del Trabajo, sólo el 13% de las personas fallecidas como consecuencia del trabajo fallecen en accidentes de trabajo. Es decir, cada año en Hego Euskal Herria mueren cientos de trabajadores y trabajadoras por enfermedades profesionales, pero la mayoría no aparecen en los registros.

Aunque las cifras sean enormes, no es una prioridad política. Se destina el 0,01% de los presupuestos públicos a la prevención de la salud laboral. En el año 2021 hubo 11 asesinatos en la CAPV, pero la inseguridad en la calle provoca una mayor preocupación política y mediática, ya que los muertos del capital son daños colaterales para empresarios y responsables políticos.

La pérdida de vida de los trabajadores y trabajadoras en el trabajo no es una cuestión de suerte, hay culpables y responsables. Morir en el trabajo no es una consecuencia de la mala suerte. Las empresas y los gobiernos provocan precariedad laboral y no destinan recursos suficientes a la prevención. Por eso dice ELA que nos condenan a morir.
El 28 de abril celebramos el Día Internacional de la Salud y la Seguridad en el Trabajo. ELA quiere recordar a nuestros compañeros y nuestras compañeras que han perdido la vida en accidentes laborales. Pero para que sean las últimas muertes no queremos un día de propaganda, queremos que sea un día para poner los medios para acabar con esta lacra y los partidos políticos tienen la oportunidad de comprometerse en las elecciones.

**Nos condenan a morir** **#GobiernoVascoComplice** **¡STOP a la impunidad empresarial!**

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

2024ko **LAN OSASUNAREN ETA SEGURTASUNAREN** NAZIOARTEKO EGUNA

# IKUSKARITZARIK GABE LANGILEOK HERIOTZERA KONDENATUTA!

**ELAk, hauteskundeen aurretik, lan-ikuskari plantilla 120ra handitzeko konpromisoa eskatzen die alderdi politikoei**

Aurtengo Apirilaren 28a, Lan Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko eguna, testuinguru politiko berezi batean suertatu da, EAEko hauteskunde politikoak gertatu eta astebetera hain zuzen. Horregatik ELAk eskakizun argia egiten die hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politiko guztiei, hauteskundeak baino lehen langileen osasunaren aldeko konpromiso argia erakutsi dezatela eta, ondorioz, EAEko lan ikuskari kopurua 120ra igo dezatela, egungo 58 beharrean.

Gaizki burututako beste eskuduntza batzuekin bezala, lan ikuskaritzaren eskuduntza ez zitzaion erabat eskualdatu Eusko Jaurlaritzari eta, ondorioz, ikuskari kopurua ezin da handitu Espainiako Gobernuarekin adostu ezean. ELAk lan ikuskari kopurua handitzea alderdi guztientzat erabateko lehentasuna izatea exijitzen du. Europako bataz-besteko ikuskari kopurua lortzea besterik ez du eskatzen ELAk. Ikuskari kopurua handitu ezean argi geratuko da alderdi politiko ezberdinen konplizitatea enpresari esplotatzaileekin.

Espainiako Gobernuarekin eskuduntza eta baliabideak eztabaidatu bitartean, ELAk ikuskaritzari laguntzeko 50 langilez osatutako unitate berezi bat osatzea exijitzen du prebentzio neurriak betetzen direla bermatzeko eta lan osasunaren aurkako jardunak ikertzeko. Ez dago lan istripu eta gaixotasun profesionalek haina heriotza eta zauritu eragiten dituen kausa ez naturalik eta ELAren eskaera erabat arrazoizkoa da, are bestelako delitu batzuentzat erabiltzen diren baliabideak kontuan izanik.

Euskal Herrian urtero 50 langilek baino gehiagok galtzen dute bizia lan-istripuetan. Nazioarteko Lanaren Erakundearen arabera, lanaren ondorioz hildakoen %13 soilik hiltzen da lan istripuetan, hau da, Hego Euskal Herrian urtero ehunka langile hiltzen dira gaixotasun profesionalen ondorioz, gehienak erregistroetan agertu ez arren.

Kopuruak izugarriak izan arren ez da lehentasun politikoa. Aurrekontu publikoen %0,01 erabiltzen da lan osasuneko prebentziorako. 2021ean EAEn 11 erailketa egon ziren, baina kaleko segurtasun ezak askoz ere kezka politiko eta mediatiko handiagoa eragiten du, Kapitalak eragindako hildakoak albokalteak baitira enpresari eta arduradun politikoentzat.

Langileek lanean bizitza galtzea ez da zori kontua, errudunak eta erantzuleak daude, lanean hiltzea ez da zorte txarraren ondorioa. Enpresek eta gobernuek lan-prekarietatea eragiten dute eta ez dute baliabide nahikorik bideratzen prebentziora. Horregatik dio ELAk hiltzera kondenatzen gaituztela.

Apirilaren 28an Lan Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. ELAk egun honetan lan-istripuan galdutako gure lankideak oroitu nahi ditu. Baina hildako lankideak azkenak izan daitezen egun horretan ez dugu propaganda egunik nahi, gaitz honekin amaitzeko baliabideak jartzeko eguna izatea nahi dugu eta alderdi politikoek aukera paregabea dute hauteskundeetan konpromiso hori hartzeko.

**Hiltzera kondenatzen gaituzue** **#JaurlaritzaKonplizea** **Enpresarien inpunitateari STOP!**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA